

EUSKAL HERRIKO PUTXERA TXAPELKETA (Loiu)

1. TXAPELKETAREN DATA

Euskal Herriko Putxera-Txapelketa, 2020ko urtarrilaren 25ean izango da, Loiu, Zabaloetxe auzoan, 09:00etatik aurrera. Putxerak egiteko ezin izango da inguru hori hesitu, urtarrilaren 25era arte, 06:00etatik aurrera.

2. IZEN-EMATEA

Inskripzioa udal liburutegian egin beharko da, 09:00etatik 11:00etara, urtarrilaren 25ean bertan.

Adin nagusiko edonork eman dezake izena, NANA daramala, eta horretarako jartzen diren baldintzak bete beharko ditu. Momentu horretan 5,00€ ordainduko ditu, aurkezten den putxera bakoitzagatik.

Txapelketan ezin dute parte hartu udal langileek, korporatiboek ezta epaimahaikoek ere.

2/2004 legean eta Datu pertsonalen babeserako 15/1999 lege organikoan agertzen den moduan, luzatu dizkiguzun datuak erabiliak izango direla eta Loiu udalak baimendutako fitxategi automatizatueta sartuko direla adierazi nahi dizugu. Fitxategi hauek Datuen babeserako Euskal Agentziaren barneko DBEOan erregistratuko dira, bere helburua, bere konpetentzien barne dauden udal gestioak egitea izanda. Datuak egokia den babesa edukiko dute, soilik legeak baimentzen dituen kasuetan zesioak egingo dira. Herriko Plaza 1, 48180 Loiu (Bizkaia) helbidean kokatutako Udaletxera zuzentzeko aukera dago sarrera, zuzentze, oposaketa eta ezeztapen eskubideak aurrera eramateko

3. BALDINTZAK

Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste putxera aurkez dezake. Putxerak 12:30etik 14:30era aurkeztu beharko dira.

Aurkezten d(ir)en putxerak oinarrian indabak izango ditu(zte) (indaba gorria, beltza edo pinta), ohiko moduan prestatuak, eta ohiko ongailuekin prestatu ahal izango d(ir)a: txorizoa, odolkoa, urdaia, azenarioa, saiheskia, eta behi-hegal; baina ez da ezinbestekoa guztiak erabiltzea.

4. EPAIMAHAIA

Euskal Herriko Putxera-Txapelketako epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da (iradokizunak jasoko dira hurrengo edizioetarako), Alkate jaunak aurretik aukeratuko du eta osoko bilkurari proposatuko dio onar dezan. Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia, hala ere, bazarik egonez gero, Alkatearen ebazpen bidez ordezkioa izendatuko da, putxeren aurkezpenaren aurretik.

- Epaimahaiko zuzendaria: Mari Jose Mentxaka (EAJ_PNV Loiu zinegotzia).
- Logistika eta azpiegitura koordinatzailea: Ainhoa Tübet (EAJ_PNV Loiu zinegotzia).
- Epaimahiko koordinatzailea: Jose M^a Aguirre (La Roca del Fraile jatetxe).

Epaimahaiak:

1. MAHAIA (IKUSMEN FASEA)

- -Javi Lezama (Balmaseda Putxera kofradia)
- -Garikoitz Ríos (Bodega Ixtas Mendi)

2. MAHAIA (DASTATZE FASEA)

- -Jon Lodeiro (Sikera jatetxea)
- -Txema Santamaría (Leioako Ostalaritza Eskola)
- -María Jesús Aurrekoetxea (Aurregoiti jatetxea)
- -Luis Angel Larrondo (La Roca del Fraile jatetxea)

3. MAHAIA (DASTATZE FASE BEREZIA)

- -Igor Cubillo (Kritiko gastronomikoa)
- -Nerea Cuenco (Sumillera eta Urrezko sudurra; Sikera jatetxea)

2.epaimahaiko (zapora dastatzea) lau kideek aho batez aukeratzen dituzten putxerak baino ez dira pasatuko dastatze bereziko 3.mahaira. Azken dastatze honetan, zaporea bakarrik baloratuko da.

Epaimahaiak honako alderdi hauek baloratuko ditu:

Aurkezpena (0-7,5)

Zapora (0-10)

Egoste-puntua (0-10)

Gehieneko puntuazioa:


Aurkezpena : 15 puntu

Zapora: 50 puntu

Egosteta: 40 puntu

Berdinketa egonez gero, egoste-puntuaren puntuazioa nagusituko da, gero zapora eta azkenik aurkezpena.

Putxerak epaimahaiaren esparruan egongo dira antolatzaileek egokitzen duten denboran.



5. SARIAK

Euskal Herriko Putxera-Txapelketaren sari banaketa egunean bertan egingo da, 18:00etan, Zabaloetxeko udal pilotalekuan. Pilotalekuak, gehienez ere, 400 lagun har ditzake (bazkaltzeko, 13:00etan zabalduko da pilotalekua). Hala ere, saria jaso ahal izateko, izena emandako irabazleak Udaletxera joan beharko du bere nortasuna egiaztatzen duten dokumentuekin eta diru-saria jasotzeko kontu-korrente batekin. Bertan, dagozkion dokumentuak sinatuko ditu. Partehartzaileen artean ahalik eta sari kopururik handiena banatzeko, sailkapen orokorrean sariren bat jasoz gero eta herri mailakoan beste bat, sari handiena duena baino ez zaio emango. Sailkapen orokorrari dagokionean neurri bera aplikatuko da, hau da, orokorrean sariren bat jasotzeak orokorreko beste sariak jasotzeko aukerarik gabe utziko du partehartzailea. Hor ere diru-kopururik handienekoa emango zaio. Sailkapen orokorrean saria jasotzeak bigarren saria jasotzea galaraziko du, bai orokorrean bai herriko sailkapenean, bai sailkapen probintzialean. Helburua da jende gehiagok jasotzea sariak. Beti diru-kopuru eta maila handieneko saria banatuko da. Kategoría berean ezin da saririk pilatu, ezta horien artean ere.

SAILKAPEN NAGUSIA		HERRIKO SARIAK	
1.SARIA	600 € (Aspaldiko, Batzoki Loiu, Hogar del Jubidado, Hotel Loiu eta Lasshoak emandakoa) txapela eta trofeoa	1 SARIA	200,00 € eta txapela
2.SARIA	290,00 € eta trofeoa	2.SARIA	150,00 € eta trofeoa
3.SARIA	250,00 € eta trofeoa	3.SARIA	100,00 € eta trofeoa
4.SARIA	200,00 € eta trofeoa	4.SARITIK 10.SARIRA	Trofeoak eta ardoa
5.SARIA	150,00 € eta trofeoa		
6-20	Trofeoak, ardoa eta txakolina		

Gainera:

Bizkaiko putxerarik onena: 100,00€

Gipuzkoako putxerarik onena: 100,00€

Arabako putxerarik onena: 100,00€

Nafarroako putxerarik onena: 100,00€

Iparraldeko putxerarik onena: 100,00€

Udalak sariak banatzeko orduan, zerga eta gizarte segurantzaz alorrean eta abarretan indarrean dagoen araudiaren arabera jokatu du.

6. SARE SOZIALETAKO SARI BEREZIA

Saria emango zaio, sare sozialen bidez (facebook, instagram edo twitter) LOIUKO txapelketako #putxerasloiu hashtag-arekin igotako argazkirik onenari.

Argazkia baliozkoa izateko #putxerasloiu hashtag-arekin igo beharko da urtarrilaren 25ean 06:00etatik 23:59ra bitartean.

Argazkia baloratzea orduan, Antolakuntzak hauek hartuko ditu kontuan:

- Kalitatea
- Sormena
- Argazkiaren like kopurua
- Argazkiaren iruzkinak

Saria: 8 lagunentzako putxera bat.

Alkate Jaunak edo egun horretan legez ezarritako ordezkioak, Alkatetzako ebazpen bidez, aurreko edozein atal aldatzeko eskubidea izango du.

Txapelketan parte hartzeak oinarrietan ezarritakoa onartzea dakar.